



Bidasoa - Txingudi

BIDASOA-TXINGUDI MUGAZ GAINDIKO PARTZUERGOA

ALBISTEAK

BIDASOA-TXINGUDI

www.irunhondarribiahendaye.com

MUGAZ GAINDIKO MUGIKORTASUN MAPA

Irun, **Hondarribia** eta **Hendaia**ko Udalek, Bidasoa-Txingudi Mugaz Gaindiko Partzuergoaren bidez, eta Syndicat des Mobilités de la Communauté d'Agglomération Pays Basque delakoarekin elkarlanean, mugaz gaindiko mugikortasun mapa berria atera dute, guztien garraioan joan-etorriak egiteko bitartekoei buruzko informazioa ematen duena.

Herritarren eta bisitarien eskura dago jada **Hendaia**ko turismo bulegoan nahiz **Hondarribikoan** (Arma Plaza eta Matxin Arzu) nahiz **Irungoan** (Luis Mariano). Irunen HAZen ere erosi daiteke (San Martzial kalea).

ESKOLA URTE BERRIA

Eskola urte berria jada hasita, une egokia da oporren egutegiaren konparazioa egiteko, familiek aisialdiko jarduerekin eta merkataritzarekin goza dezaten gure eskualdera etorrira.

Akitania Berria eskualdean (**Hendaia**) 09/02an hasi ziren berriro eskolan eta honako opor hauek izango dituzte: Santu guztietan (10/20 => 11/03), Eguberrietan (12/22 => 01/05), Neguan (02/23 => 03/08), Udaberrian (04/19 => 05/03), Igoakundean (05/20 => 05/24) eta udan 07/05etik aurrera.

Euskal Autonomi Erkidegoan, 09/07an hasi ziren berriro eskolan **Irunen**, 09/12an **Hondarribiaren** kasuan herriko jaiak izateagatik, eta honako opor hauek izango dituzte: Eguberrietan (12/21 => 01/06), Aste Santuan (04/04 => 04/18) eta udan 06/20tik aurrera.

SANTU GUZTIEN EGUNA

Bidasoko hiru hirietan (**Irun**, **Hondarribia** eta **Hendaia**) modu berean ospatzen da Santu Guztien eguneko tradizio katolikoa azaroaren 1ean. Egun horretan mezak ematen dira hildakoen oroitzapenez eta loreak eramaten dira hilobietara.

Ohitura horrek zelten garaian du jatorria, haiek uste baitzuten hildakoak bizien mundura iritsi eta haiekin komunika zitezkeela. Handik dator halaber, Halloween jai urriaren 31tik azaroaren 1erako gauean ospatzen dena, gure lurraldean ere sartzen ari den ohitura.

Hendaiaren kasuan, gainera, familian igaro ohi diren oporraldietako baten garaia izaten da, eta hirian gazteenentzako aisialdiko jarduerak antolatu ohi dira une horretan azken urteetan.

Irunen eta **Hondarribian** bada beste ohitura gastronomiko bat ere, "Santu hezurak" jan ohi dira, mazapanez (almendra ore) egindako postre tradizionala.

HONDARRIBIA IRUN TURISMOA

www.bidasoaturismo.com



BURDINAREN BIDEA

Pirinioetako Burdinaren Bidearen esparruan erakusketa bat egiten da **Irungo** Oiasso Erromatar Museoa irailaren 25etik urriaren 20ra.

Hondarribia Irun Turismoak parte hartzen duen bide europar honek eta **Irungo Irugurutzetako Labeek** "burdinaren historian ibilbidea egiteko aukera ematen dute Pirinio mendiguneko paisaian nahiz hiri ehunean aztarna handia utzi duen tradizio siderurgiko handiko testigantzetako baten bidez".

Informazio gehiago: www.ironrouteinthepyrenees.com / www.oiasso.com

HENDAYE TOURISME

www.hendaye-tourisme.fr



TXIK TXAK VÉLIBLEU

Vélibleu Bizikleta zerbitzua da **Laguntza Teknikoarekin Zerbitzu-Librean**, iraupen txikikoa, **Hendaia** eta Tarnose udalerrien arteko itsas bazterreko lurraldean.

Eguzki energiaren hornitzaile 2 estazio jarri dira **Hendaian**. **Errepublikan plazan**, Udaletxetik hurbil, eta **Hondartzan Handian**, minigolfetik gertu, daude.

Bizikleta horiek giltzatzeko sistema konektatua eta geo-aurkigarria dute eta bizikleta aurkitu, babestu eta desblokeatzeko aukera ematen du App Storen eta Google Playn eskuragarri dagoen telefono mugikorreko aplikazio erraz bati esker.

TURISMO NEWSLETTERRA

3. – 2019ko Iraila





Bidasoa - Txingudi

BIDASOA-TXINGUDI MUGAZ GAINDIKO PARTZUERGOA

AGENDA

URTE OSOAN

ONDAREA

Oiasso erromatar museoa: bidaiatu ezazu erromatarren garaira Oiasso portuko hondakin arkeologikoekin, bertako termekin, nekropoliarekin eta meatze ustategiekin.

Eskoleta 1, [Irunen](#).

www.oiasso.com

Kultur Informazio zentroa: ezagutu ezazu hiria bere historiaren, ondare ukiezinaren eta bere kulturaren bidez, egungoa nahiz tradizionala.

Arma Plaza 9, [Hondarribian](#).

www.armaplaza.eus

Abbadia Gaztelu Behatokia: Etor zaitez Euskal Herriko gaztelu bereziena ezagutzera edo berrezagutzera, bisita gidatuak urte osoan.

Route de la Corniche, [Hendaian](#).

www.chateau-abbadia.fr

Bidasoko Interpretazio zentroa: Oinezkoentzako nazioarteko zubiaren ertzean, badiako bidearen bihotzean, [Irun](#), [Hondarribia](#) eta [Hendaia](#), hiru hiriak biltzen dituen mugaldeko lurralde honetan aurki daitezkeen interes komuneke gai nagusiak ekartzen ditu gogora zentro honek.

Iparralde etorbidea 63, nazioarteko zubiaren ondoan.

www.irunhondarribiahendaye.com => Home / ure eskaintzak

AZOKAK

[Irunen](#), azoka larunbat goizetan Urdanibia plazan.

[Hondarribian](#), baserriko produktuen azoka asteazkenetan Damarri plazan eta larunbatetan Portuan; brokantea eta bildumazaletasuna hilabetero 1. eta 2. igandetan Kirol Kaian; arte azoka hilabetero 3. igandean Kirol Kaian.

[Hendaian](#), merkatu txikia asteazken goizetan Errepublikan plazan eta larunbat goizetan Sokoburur.

UDAZKENEAN

Urriko hilabete osoan: Urri arrosa Hendaian, hainbat jarduera antolatzen dira bularretako minbiziaren prebentziorako kanpaina nazional frantsesaren esparruan.

Urriaren 5ean: Txingudi Korrika, 16:30ean aterako da (10 minutu lehenago rollerrak) [Hendaia](#)ko Florida kaitik eta [Hondarribiko](#) atletismo pistara iritsiko da [Irungo](#) erdialdetik igaro ondoren (10 km).

Urriaren 11tik 13ra: Harri Orri Ar, Irungo Bidasoko Erakustazokan (FICOBA), eskulan eta brikolaje azoka (Handmade).

Urriaren 17tik 20ra: Hendaia Film Festival, film laburren jaialdia Begiradak-ek antolatua Mendi Zolan eta Les Variétés [Hendaian](#).

Urriaren 21etik azaroaren 2ra: Haurren asteak Hendaian. Turismo bulegoak hainbat jarduera antolatzen ditu eskolako oporrak familian gozatzeko.

Urriaren 27an: Maratoi erdia Donibane Lohizune – Hondarribia (22 km), 10:00etan aterako da Donibane Lohizuneko Victor Hugo Bulebarretik eta Zuloaga kalean bukatuko da [Hondarribian](#).

Azaroaren 1ean: Beñat Elzo mendi lasterketa, 11:00etan aterako da [Hondarribiko](#) Kirol Kaitik eta leku berera itzuliko da (10 km).

Azaroaren 8tik 9ra: Behobia Donostia lasterketaren azoka Irungo Bidasoko Erakustazokan (FICOBA).

Azaroaren 10ean: Behobia – Donostia lasterketa (20 km) 9:45etik aurrera [Irungo](#) Behobia auzotik aterako da eta Donostiako Bulebarrean bukatuko da.

Azaroaren 18tik 23ra: Bidasoko Nazioarteko Zinemaldi Arkeologikoa (BNZA), [Irungo](#) Oiasso Erromatar Museoak antolatua.

Abenduaren 6tik 8ra: “Be veggie” azoka beganoa, Irungo Bidasoko Erakustazokan (FICOBA) elikagai % 100 begetalak kontsumitzeari eta produktu eta zerbitzu iraunkorrak, osasunerako onuragarriak eta animalia esplotaziorik gabek, erabiltzeari buruz.

TURISMO NEWSLETTERRA

3. – 2019ko Iraila

